

# Hezkuntzako jubilazioak

## MUFACE

1975. urtean sortu zen mutua hau (Estatuko Administrazio zibileko funtzionarioena).

Hezkuntza Publikoan, funtzionarioek 60 urterekin erretiratzeko eskubidea izan dugu, baina interinoak beti izan dira bazterturik, eta ez dute eskubide hau bermaturik.

## LOGSE-LOE

LOGSEk, 1990ean, plantillak gaztetzeko helburuarekin, hainbat neurri sartu zituen (kotizazio urte gutxiago eskatu...) bai eta jende gehiagori aukera zabaldu ere (hezkuntzan emakume askok zaintza lanetan ibilitako denboran ez dute kotizatu).

1990. urtetik 2011 urteko abuztuaren 31 arte neurri hauek mantendu dira. Era berean Gizarte Segurantzaren menpe zeuden gainontzeko funtzionarioek ere jubilazioa hartzeko aukera izan dute, interinoek, berriz ere, ez. Beraz, azken 21 urte hauetan “LOEren jubilazioa” deitutakoaren baldintzak mantendu dira.

## Orain, 2012an

- Gizarte Segurantzaren menpe dauden gainontzeko irakasleek, funtzionario zein ordeko, 65 urte bete arte itxaron beharko dute. (aldeztatik MUFACEko kideak ez badira izan), eta 2013 urtetik aurrera erretiratzeko adina luzatuz joanen da.
- MUFACEn dauden funtzionarioek 60 urterekin erretiratzeko eskubidea dute, beti ere orain arte baino baldintza gehiago eskatuz. Madrilen 2011ko otsailaren 2an sinatutako “Itun Sozial eta Ekonomiko”ak MUFACEko funtzionarioei erretiratzeko neurri murriztaileekiko “armonizazio” neurriak ezartzeko konpromisoa hartu du, eta, Ministerioak honako proposamena mahairatu zuen: berdintzeko MUFACEko jubilazioa eta Gizarte Segurantzakoa, bai adin eskakizunean, bai kotizatutako urte kopuruan.

## Gure erronka

- Beste sektoreekin batera mobilizazio kanpaina bati ekitea egoera aldarazteko.
- Hezkuntzako langileon jubilazio adina, egoera bereziak hala eskatuta, lehenago izatea beharrezkoa dela ikusaraztea gizarteari.
- Besteak beste, bi arrazoi hauek helarazi:
  - Gutxi barru, hainbat ikastetxeetan, 60 urtetik goitiko irakasleak nagusi izanen dira.
  - Irakasle gazteak bahiturik ditugu, eta hau asko da.

## BORONDATEZKO JUBILAZIOA

- a) MUFACEko funtzionarioek erretiroa eska dezakete 60 urte betetzean eta kotizatu baldin badituzte 30 urte.

2011 urteko urtarrilaren batetik, eskatutako 30 urte horiek lortzeko beste erregimen batetako kotizazioak kontuan hartu behar direnean, pentsio eskubidea izateko azken 5 urteak “Régimen de Clases Pasivas del Estado” delakoan kotizatuak izan behar dira.

Eskaera aurkezterakoan jubilatzeko data zehatza ezarri behar da, eta data hori baino 3 hilabete lehenago erregistrotik sartu.

## b) 2011/02/02ko “Itun Sozial eta Ekonomiko”aren Jubilazio aurreratua

Langileak 63 urtetik aurrera erretiratu daitezke, beti ere, 33 urte kotizatuak izanik. Gelditzen zaizkion urteko %7,5 gutxituko da pentsioa.